

ETXALARKO BESTAK 2017

Kartel eta azal lehiaketa

Aurtengo bestetako azal eta kartel lehiaketaren deialdia zabaldu du Etxalarko Kultura Batzordeak

LEHIAKETAREN OINARRIAK

- 1) Entregatu beharreko lanak
 - Kartelak: Lanak A3 tamainan inprimatuko dira (297mm*420mm), formatu digitalean aurkeztu behar dira 300pp erresoluzioarekin eta bertikalean, edo kartulina edo paper lodian. Teknika librea
 - Azalak: Papera lodia edo kartulinan A4 neurrian aurkeztu behar dira (210*297) marrazkiz edo argazkiz egina eta bertikalean. Teknika librea.
- 2) Parte Hartzaileak: Nahi duen guztiak parte hartu ahal izanen du lehiaketan, eta nahi hainbertze lan aurkeztu ahal izanen ditu.
- 3) Gaia: Kartelak eta azalak, Etxalarko besta giroa islatuko du.
- 4) Testuak:
 - Kartelean **Etxalarko Bestak 2017** eta **Abuztuaren 14tik 18ra** testuak agertu beharko da nahitaez eta ez du bertzelako testurik eramanen. Egileak bestetako programa zehatza sartzeko tokia uztea kontuan eduki beharko du, orriaren 1/3 bat edo (1000 karaktere zuriuneak kontatuz 2016ko kartelaren testua).
 - Azalean **Etxalarko Bestak 2017** eta **Abuztuaren 14tik 18ra** testuak agertu beharko da nahitaez eta ez du bertzelako testurik eramanen.
- 5) Estilo: Gaia, estiloa eta erabilitako teknika libre izanen da, beti ere Etxalarko besta giroa islatuz. Lanek jatorrizkoak eta argitaratu gabeak izan beharko dute, ezin dira izan bertze lehiaketetan aurkeztutakoak eta ez dira arruntean edo neurri batean argitaratutako bertze lan batzuen kopia, edo edonola bertze artista batzuen lanak: kartelak, margolanak, etab.
- 6) Aurkeztutako epea eta lekua:
 - Kartelak: 2017ko maiatzaren 31a arte (Asteazkena) arratsaldeko 19:30 baino lehen aurkeztu beharko dira Etxalarko Kultur Etxean edo kulturetxea@etxalar.eus helbidera bidalita.
 - Azalak: 2017ko maiatzaren 31a arte (Asteazkena) arratsaldeko 19:30 baino lehen aurkeztu beharko dira Etxalarko Kultur Etxean. Epea ez da luzatuko.
- 7) Lanen aurkezpena:
 - Aurkeztutako lanen gibelean goitzen bat baino ez da paratuko - egilearen izena agertutako lanak ez dira onartuko-, eta aparteko gutun-azal batean erantsiko dira egilearen datuak, kanpoko aldean goitizena jarriz. Gutun-azalaren barrenean honako datuak agertu beharko dira: izen-abizenak, adina, helbidea, telefonoa eta posta elektronikoa.

- 8) Irabazleak:
- Propio eraturako epaimahaia batek aukeratuko ditu saridunak.
 - Lehiaketaren erabakia bakarra izanen da eta ezin izanen da inolaz ere helegiterik jarri.
- 9) Aurkeztutako lan guztien jabea Etxalarko Udala izanen da, zera da, bere iragarpen, argitalpen, zabalkunde eta bertzelakoen eskubide guztiak gordeko ditu beretzako. Horietan lanen saridunen egileak emanen dira.
- 10) Lanak ez dira itzuliko. Sarituak izan ez diren lanak Udalak Bestetako programan erabiltzeko edo erakusketa bat egiteko eskubidea bere egiten du, betiere egilea nor den adieraziz
- 11) Sariak:
- Kartelak: 50€ eta bazkari edo afari bat Etxalarko Herriko Ostatuan 2 lagunentzat
 - Azalak: 100€.
- 12) Lehiaketa hutsik geratzen ahal da
- 13) Lehiaketaren parte hartzeak oinarri hauek guztiak onartzea dakar berarekin, nahitaez.

Edozein zalantza argitzeko: kulturetxea@etxalar.eus / 948 635 386

Etxalar 2017ko apirilak 5

Kultura Batzordea, Etxalarko Udala.